g) Umeen abusu eta ustiapen sexuala ekiditeko programa eta zerbitzuei buruzko praktika onen protokolo bat finkatua edukitzea.

*13. Dirulaguntzen ordainketa.*

1. C eta D lerroetako dirulaguntzak ematen diren momentuan ordainduko dira osorik; besteak, hau da, A, B eta E lerroetakoak, honela ordainduko dira:

— Hasierako ordainketa bat dirulaguntza ematen denean, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan. Lehen ordainketaren zenbateko hori onuradun guztientzat ehuneko berdina izango da eta ematen den ekitaldiko aurrekontu kredituaren arabera zehaztuko da, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 32.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

— Bigarren ordainketa onartutako laguntzaren lehen ordainketaren zenbatekoaren % 40 burutu dela justifikatzen denean, kontuan hartuta erakundeak justifikazio hori aurkezteko izango duen epea urtebetekoa izango dela, dirulaguntza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.

2. A, C.a, D eta E eranskinen kasuetan, entitate onuradunak transferitu egin beharko du jasotako dirulaguntza, zuzeneko gastuen kontzeptuan, proiektua gauzatu den herrialdeko kontu batera.

3. Dirulaguntzen xedea kontuan hartuta eta horiek jasotzen dituzten erakundeak irabazi asmorik gabekoak direnez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik.

4. Oinarri hauen bidez arautultako dirulaguntzen onuradunek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) dagoen dirulaguntzen atariaren bidez eskatu beharko dute aurretik emandako dirulaguntzatik falta den zatia ordaintzeko, kasu bakoitzean egokia den egiaztagiriak aurkeztuta.

5. Dirulaguntza ematen den momentuan egindako ordainketaren hurrengoak jaso ahal izateko, erakunde onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak betetzeari buruzko agiriak eguneratu beharko dituzte.

*14. Dirulaguntzen justifikazioa.*

1. Oinarri arautzaile hauen xede diren dirulaguntzak Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiak ezarritako formatu ofizialaren arabera egindako justifikazio txostenak aurkeztuz justifikatuko dira; bestalde, A, B eta E lerroen kasuan, bi txosten aurkeztu beharko dira (bata, jarraipen txostena eta, bestea, azken txostena), eta C eta D lerroei dagokienez, azken txosten bat aurkeztu beharko da soilik. Bost lerroetarako, proiektuaren kostuaren % 100 justifikatu beharko da. Orokorrean, txosten bakoitzak elementu hauek jasoko ditu:

a) Narrazio-atal bat euskaraz edo elebietan.

la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente que ésta le facilite, así como leyendas relativas a la financiación pública en todos los carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, en menciones realizadas en medios de comunicación o acciones de comunicación o cualquier material.

e) Tener disponibilidad para participar en cuantas acciones de Educación para la Transformación Social se le indiquen desde la Dirección General de Cooperación Internacional en relación al proyecto subvencionado.

f) Presentar públicamente junto a la persona titular del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa los detalles y alcance del proyecto subvencionado, en los términos y formatos que ambas partes convengan. Del mismo modo se analizará la conveniencia de realizar un balance público del resultado del propio proyecto, al término del mismo.

g) Tener establecido un protocolo de buenas prácticas sobre programas y servicios de prevención del abuso y explotación sexual infantil.

*13. Pago de las subvenciones.*

1. Las subvenciones de las líneas C y D se abonarán íntegramente en el momento de la concesión. El pago de las subvenciones de las líneas A, B y E se realizará del modo siguiente:

— Un primer pago en el momento de concesión, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. El importe de ese primer pago constituirá un porcentaje idéntico para todas las entidades beneficiarias y se determinará en función del crédito presupuestario del ejercicio en que se efectúe la concesión, siguiendo lo dispuesto en el artículo 32.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Un segundo pago del resto de la subvención concedida, una vez se haya justificado la realización del 40 % del importe del primer pago de la subvención otorgada, justificación que habrá de presentarse por la entidad en un plazo máximo de un año desde la notificación o publicación de la concesión de la subvención.

2. En el caso de las líneas A, C.a, D y E la entidad beneficiaria deberá transferir la subvención recibida en concepto de gastos directos a una cuenta en el país de ejecución del mismo.

3. Dado el objeto de las subvenciones y el carácter no lucrativo de las entidades beneficiarias de las mismas, no se exigirá garantía por los pagos anticipados que se efectúen.

4. Quienes se beneficien de las subvenciones reguladas por las presentes bases deberán solicitar a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), el abono pendiente de la subvención previamente concedida, acompañando la documentación justificativa en cada caso.

5. Los pagos siguientes al coincidente con la concesión de la subvención estarán condicionados a que las entidades beneficiarias actualicen la documentación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.

*14. Justificación de las subvenciones.*

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de informes justificativos según el modelo establecido por la Dirección General de Cooperación Internacional; en el caso de las líneas A, B y E se requerirán dos informes (uno de seguimiento y otro final) y en el caso de las líneas C y D solamente será necesario el informe final. Para las cinco líneas se deberá justificar el 100 % del coste total del proyecto. Con carácter general, cada informe contendrá los siguientes elementos:

a) Un apartado narrativo en euskera o bilingüe.

EK\CV GAO-I-2025-01653

b) Atal finantzarioa, eta bertan sartuko dira dirulaguntzaren gastuen frogagiriak eta, dagokionean, tokira bertara egindako transferentziak egiaztatuko dituzten dokumentuak. Edozein kasutan, azkeneko txosten finantzarioan dirulaguntzaren zuzeneko kostu guztien % 100 justifikatu beharko da.

c) Fakturen kopiak edo merkataritzako trafiko juridikoan horien balio berekoak diren frogagiriak eta dokumentuak, edo maila administratiboan eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrenda horretan bilduak eta, behar izanez gero, baita ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Proiektuaren kodea eta entitate eskatzailearen izena daramatzan zigilu batekin izapidetuko dira fakturak, eta originalak Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren esku egongo dira beti.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

e) Hala badagokio, ordainagiria, aplikatuko gabeko soberakinen kasuan.

2. Baldin eta entitate onuradunak aukeratzen badu dirulaguntzaren justifikazioa auditoretza txostenaren bitartez egitea, aurreko txosteneko b) eta c) hizkien ordez aipatutako auditoretza txostena jasoko da.

3. Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiak aukera izango du, bere kasa, erakunde laguntzailearen bidez edo beste pertsonen edo erakundeen bitartez, diruz lagundutako proiektuetara jarraipeneko edo ebaluazioko bisitak egiteko, bertan egindako ekintzak behatu eta baloratzeko asmoz. Dena den, bisita horiek diruz lagundutako entitatearekin koordinatuz egingo dira, erakunde horrek eskaini beharko baitu leku zehatzetarako irispidea eta kasu bakoitzean beharrezkoa den informazioa.

4. Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagundu daitekeen gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela edo dirulaguntza egiaztatzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete, dirulaguntza jaso duen erakundeari jakinaraziko zaio egiaztapenaren emaitzekin batera eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedura hasiko da edo, hala badagokio, dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko 16. oinarrian aurreikusitakoa.

5. Diruz lagundutako entitateak Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren berariazko baimena jaso beharko du egikaritutako ekintzan hasiera batean aurreikusi zenarekiko funtsezko aldaketak egin ahal izateko, ezarritako eredu ofizialak erabiliz. Berariazko baimen hori Nazioarteko Lankidetzako zuzendariaren ebazpenaren bidez formalizatuko da. Funtsezko aldaketatzat ulertzen da aurrekontuaren partida bakoitzerako onartutakoaren % 20etik gorako edozein aldaketa, betiere, partida 10.000,00 eurotik gorakoa baldin bada A, B, D eta E lerroetarako, eta 5.000,00 eurotik gorakoa C lerrorako; aldi berean, funtsezko aldaketatzat hartuko dira populazio hartzaileari eta proiektuaren kokapenari buruzko aldaketa guztiak, eta baita ere aurreikusitako emaitza eta helburuetan izandako aldaketak eta proiektuaren hiru hilabete baino gehiagoko luzapenak. Azkeneko kasu honetan, luzapenek ez dute proiektuaren exekuziorako planifikatutako indarraldiaren erdia gaindituko.

Funtsezkoak ez diren aldaketak Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaizkio.

6. Dirulaguntza egiaztatzeko ezarritako epean ez bada 1. apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskumena duen organoak onuradunari errekerimendua egingo dio 15 eguneko epean aurkez dezan. Epe berri hori amaitutakoan frogagiriak ez aurkeztu izanak eragingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo itzultzeko prozedura hastea. Hori guztia, salbuespen gisa, baimendu daitezkeen balizko luzapenen kalterik gabe.

b) Un apartado financiero, que incluirá los justificantes de gastos de la subvención y, en su caso, los documentos acreditativos de las transferencias realizadas a terreno. En todo caso, en el informe financiero final deberá justificarse el 100 % del total de los costes directos de la subvención.

c) Las copias de facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago. Las facturas se diligenciarán mediante un sello con el código del proyecto y el nombre de la entidad solicitante y los originales estarán a disposición de la Dirección General de Cooperación Internacional.

d) Una relación de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

e) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

2. En el caso de que la entidad beneficiaria opte por acogerse a la justificación de la subvención por medio de informe de auditoría, las letras b) y c) del anterior informe se sustituirán por dicho informe de auditoría.

3. La Dirección General de Cooperación Internacional podrá realizar, por sí misma o a través de la entidad colaboradora u otras personas o entidades, visitas de seguimiento o evaluación de los proyectos subvencionados, con el objeto de observar y valorar las acciones realizadas. La visita se hará en coordinación con la entidad subvencionada, la cual deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

4. Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el gasto subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad subvencionada junto a los resultados de la comprobación realizada, y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la subvención o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial de la subvención previsto en la base 16.ª

5. La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso de la Dirección General de Cooperación Internacional para llevar a cabo modificaciones sustanciales en la ejecución de la acción con respecto a lo previsto inicialmente, debiendo utilizar para ello los modelos oficiales. Este consentimiento expreso se formalizará mediante resolución del director o de la directora general de Cooperación Internacional. Se entiende por modificación sustancial una variación superior al 20 % de lo aprobado para cada partida del presupuesto, siempre que el valor de la partida sea superior a 10.000,00 euros para las líneas A, B, D y E y 5.000,00 euros para la línea C, así como todos los cambios relativos a la población sujeto, localización del proyecto, alteraciones en los resultados y objetivos esperados y prórrogas del proyecto que superen el plazo de tres meses. En este último caso, las prórrogas no excederan la mitad del periodo para el que fue planificada la ejecución del proyecto.

Las modificaciones no sustanciales se deberán informar a la la Dirección General de Cooperación Internacional.

6. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado 1, el órgano competente requerirá a la persona beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. Transcurrido este nuevo plazo, la falta de presentación de la justificación llevará aparejada la pérdida del derecho de cobro de la subvención o el inicio del procedimiento de reintegro. Todo ello sin perjuicio de las posibles prórrogas que, con carácter excepcional, se hayan podido autorizar.

EK\CV GAO-I-2025-01653

*15. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Organo eskudunak ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, aurrez erakunde interesdunarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari ez bazaizkio kalte ekonomikoak eragiten.

*16. Dirulaguntzen itzulketa.*

1. Erakunde onuradunak ez baditu oinarri hauetan, berariazkoetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galduko du eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoari eta apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak, onetsitako garapen araudiko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz, eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

*17. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak, oinarrietan eta lerroetan jasotako oinarri espezifikoetan xedatutakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, eta hori garatzeko emandako araudia, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

*A lerroa. Hegoaldeko herrialde eta herri pobretuetako garapen proiektuetarako dirulaguntzak, Afrikakoak izan ezik.*

*1. Xedea.*

Oinarri espezifiko hauen xedea da dirulaguntzak arautzea CAD zerrendako herrialdetan (Afrika salbu) giza garapen berdin eta iraunkorra sustatzera eta baztertze arrazoien kontra borrokatzera bideratutako lankidetza proiektuak gauzatzeko.

*2. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.*

Diruz lagundu daitezkeen proiektutzat hartuko dira irabazi asmorik gabeko entitateek soilik aurkeztutakoak, baldin eta haien xedea giza garapen iraunkorra denean, hau da, pertsona eta herrialdeen libertateak, gaitasunak eta aukerak handitzea; pobreziari lotutako gaietara bideratzea; eta eraldatze subjektuak eta beraien garapen hautabideak indartzeko laguntzak ematea.

*3. Entitate eskatzaileen betebeharrak.*

1. Lerro honetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izateko, entitate eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Irabazi asmorik gabekoak izatea.

b. Legeen arabera eratuta eta dagokion erregistroan inskribatuta egotea, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez bi urte lehenagotik.

c. Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako proiektuak gauzatzeko helburuak biltzen dituen estatutu batzuk edukitzea, edo modu frogagarrian egiaztatzea entitatea etenik gabe aritu dela lankidetza esparruan gutxienez hiru urtez.

*15. Modificación de la resolución de concesión.*

El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

*16. Reintegro de las subvenciones.*

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

*17. Normativa aplicable.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas y en las bases específicas contenidas en las líneas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

BASES ESPECÍFICAS

*Línea A. Subvenciones para proyectos de desarrollo en los países y pueblos empobrecidos del sur, salvo África.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases específicas regular la concesión de ayudas para la realización de proyectos de cooperación orientados a la lucha contra las causas de exclusión y a la promoción del desarrollo humano sostenible y equitativo en países de la lista CAD (salvo África).

*2. Proyectos subvencionables.*

Se considerarán proyectos subvencionables los presentados exclusivamente por entidades sin ánimo de lucro que tengan por objetivo el desarrollo humano sostenible, es decir, ampliar las libertades, capacidades y oportunidades de las personas y pueblos, orientarse a las causas de la pobreza, así como apoyar el fortalecimiento de los sujetos de transformación y sus alternativas de desarrollo.

*3. Requisitos de las entidades solicitantes.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en esta línea las entidades que cumplan los siguientes requisitos:

a. Carecer de ánimo de lucro.

b. Estar constituida e inscrita formalmente en el registro que corresponda, con dos años de antelación, al menos, a la fecha de finalización del plazo para la presentación de solicitudes.

c. Disponer de unos estatutos que recojan entre sus finalidades la realización de proyectos de cooperación en los países empobrecidos del sur o acreditar de forma fehaciente que la entidad lleva actuando de forma continuada en el ámbito de la cooperación al menos tres años.

EK\CV GAO-I-2025-01653

d. Bere egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoako Lurralde Historikoan edukitzea. Eskaeraren aurkezpena eta proiektuaren dokumentazioa, kontabilitatea eta kogestio osoa egoitza edo ordezkaritza horren zuzeneko ardura izango dira. Proiektuaren identifikazioan, formulazioan, jarraipenean eta ebaluazioan izandako parte-hartzea ulertuko da proiektuaren kogestio gisa; eta ordezkaritza iraunkor bezala, berriz, oinarri soziala duten egitura adierazgarriak izatea (bazkideak eta boluntario aktiboak).

e. Azken bi urteetan, gizartea eraldatzeko hezkuntzako gutxienez bi jarduera egin izana urtean.

f. 2.1 oinarri orokorrean aurreikusitako debekurik ez izatea, eta hori 2.2 oinarri orokorrean aurreikusitakoaren arabera egiaztatzea.

2. Entitateen partzuergo batek aurkeztutako proiektuek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak. Kasu horretan, partzuergoan bildutako entitateetako bakoitzak aurreko betebehar guztiak bete beharko ditu.

Partzuergoan bildutako entitateek helbide bakar bat adieraziko dute, espedientearen jakinarazpen administratiboak bertan jasotzeko. Hala ere, entitate horietako bakoitzak oinarri hauetan eskatutako dokumentazio administratibo guztia aurkeztu beharko du.

Eskaerarekin batera, partzuergo horren burutza izendatzen duen hitzarmena aurkeztu beharko da, kontsortzioa eratzera behartu dituen arrazoiak, entitate bakoitzak proiektuan duen partaidetza-maila, entitate bakoitzaren eskubideak eta obligazioak, baliabideak kudeatzeko sistema eta baita gatazka posibleak konpontzeko bideak ere. Hitzarmenean espresuki adierazi beharko da entitateetako bakoitzak proiektu osoaren gaineko erantzukizun zuzenekoa eta solidarioa onartzen duela.

*4. Tokiko entitatearen eta proiektuen betebeharrak.*

1. Proiektu guztietan populazio subjektuarekin lanean ari den antolamendu edo erakunderen baten partaidetza eskatuko da ezinbestean. Tokiko bazkide horrek nortasun juridiko propioa izango du, ez du irabazi-asmorik izango eta dagokion erregistroan izena emanda egon beharko du.

2. Tokiko entitateak elkartuta aurkeztu ahal izango dira, baldin eta entitate horiek guztiek ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen badituzte. Helburu horretarako batasun horren burutza izendatzen duen hitzarmena aurkeztu beharko da, batasuna eratzera behartu dituen arrazoiak, bazkide bakoitzak proiektuan duen partaidetza-maila, bazkide bakoitzaren eskubideak eta obligazioak, baliabideak kudeatzeko sistema eta baita gatazka posibleak konpontzeko bideak ere jasoko direlarik. Hitzarmenean espresuki adierazi beharko da entitateetako bakoitzak proiektu osoaren gaineko erantzukizun zuzenekoa eta solidarioa onartzen duela.

3. Proiektuak ekarritako ondasun higigarri eta higiezin guztiak populazio hartzailearen edo hura ordezkatzen duten erakundeen eskuetara pasatuko dira, eta, hori ezinezkoa balitz, tokiko lankidearen eskuetara pasatuko lirateke, hark laguntzaren helburua betetzen jarrai dezan. Posible ez bada, modu egokian egiaztatu beharko da eta populazio subjektuak sinatutako adostasun agiri bat aurkeztu.

4. Proiektuak ordainketa-egunaren hurrengo bi hilabeteen barruan edo une horretako urte naturalaren barruan hasi eta jarri beharko dira martxan, gehienez ere, eta bi urteko iraupena izango dute gehienez. Hala ere, beste epe gehigarri batez luzatu ahal izango dira, baina epe horrek ez du gaindituko proiektua gauzatzeko hasieran aurreikusitako epearen erdia. Proiektuari hasiera emateko adierazitako gehieneko epea luza daiteke beti ere beharrezkoa dela justifikatzen bada.

*5. Kanpo uzteko arrazoiak.*

Proiektu bat ez da onartuko baldin eta:

a) Ez bada bideragarria, lortu nahi diren emaitzak lortzeko behar diren baliabideak ondo aurreikusi ez dituelako.

d. Disponer de sede social o delegación permanente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, la cual asumirá la responsabilidad directa en la presentación de la solicitud y se comprometerá al mantenimiento de la documentación, contabilidad y cogestión del proyecto. Se entenderá por cogestión del proyecto la participación en la identificación, formulación, seguimiento y evaluación del proyecto y por delegación permanente la existencia de estructuras significativas con base social (personas asociadas y voluntariado activo).

e. Haber realizado al menos dos actividades anuales de educación para la transformación social en los dos últimos años.

f. No incurrir en ninguna de las causas de prohibición previstas en la base general 2.1, y acreditar dicho extremo conforme a lo previsto en la base general 2.2.

2. También podrán tener acceso a la subvención los proyectos presentados por un consorcio de entidades. En este caso, cada una de las entidades consorciadas deberá cumplir los requisitos precedentes.

Las entidades consorciadas designarán un domicilio único a efectos de las notificaciones administrativas del expediente. No obstante, cada una de ellas deberá presentar toda la documentación administrativa requerida en las presentes bases.

Junto a la solicitud, se deberá presentar un convenio que determine el nombramiento de la cabeza de consorcio, las razones que les han llevado a consorciarse, el grado de participación de cada entidad en el proyecto, los derechos y obligaciones de cada una, el sistema de gestión de recursos y las vías de resolución de potenciales conflictos. En el convenio se deberá señalar expresamente que cada una de las entidades asume la responsabilidad directa y solidaria por la totalidad del proyecto.

*4. Requisitos de la entidad local y de los proyectos.*

1. Todos los proyectos requerirán la participación de una organización o entidad que trabaje con la población sujeto de los mismos. Esta socia local tendrá personalidad jurídica propia, carecerá de ánimo de lucro y deberá estar inscrita en el registro correspondiente.

2. Podrán presentarse entidades locales agrupadas siempre que todas y cada una de ellas cumplan los requisitos establecidos. Para este fin se deberá presentar un convenio que determine el nombramiento de la cabeza de la agrupación, las razones que les han llevado a agruparse, el grado de participación de cada entidad en el proyecto, los derechos y obligaciones de cada una, el sistema de gestión de recursos y las vías de resolución de potenciales conflictos. En el convenio se deberá señalar expresamente que cada una de las entidades asume la responsabilidad directa y solidaria por la totalidad del proyecto.

3. Todos los bienes muebles e inmuebles derivados del proyecto pasarán a manos de la población sujeto o a las instituciones que la representen, salvo que no fuera posible dicho traspaso, en cuyo caso se traspasarían a la socia local para que siga cumpliendo el fin subvencionado. En caso de no ser posible, deberá justificarse suficientemente y presentar documento de conformidad firmado por la población sujeto.

4. Los proyectos deberán iniciarse, como máximo, dentro de los dos meses siguientes a la fecha del primer abono de la subvención o dentro del año natural en curso y tendrán una duración máxima de dos aÃ±os, prorrogables por un periodo adicional que no supere la mitad del plazo para el que fue planificada la ejecución del proyecto. El plazo máximo indicado para el inicio del proyecto podrá ampliarse siempre que se justifique su necesidad.

*5. Causas de exclusión.*

No serán admitidos los proyectos que:

a) No sean viables por no prever adecuadamente los recursos necesarios para la consecución de los resultados previstos.

EK\CV GAO-I-2025-01653

b) Denboraren joanean iraunkorra ez bada.

c) Generoaren ikuspegia sartu ez badu.

d) Tokiko gaitasunak indartzen ez baditu.

e) Eraginpeko herritarren partaidetza bermatzen ez badu.

f) Giza eskubideak errespetatzen ez baditu.

g) Naturaren eskubideak errespetatzen ez baditu.

*6. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

1. Deialdia argitaratutako urtea baino lehenagoko gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

2. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira honako zuzeneko kostu hauek:

a) Lursailen erosketa. Kontzeptuen zenbatekoa eta horien titulartasuna egiaztagiri edo frogagiri egokien bidez ziurtatu beharko da.

b) Eraikinak eta azpiegiturak erostea, eraikitzea edo zaharberritzea. Eraikuntza edo zaharberritzeko materialak, eginkizun horietara puntualki atxikitako langileak eta beharrezko azterketa teknikoak partida honetan sartu beharko dira.

c) Ekipamendu, material eta zerbitzuen erosketa eta garraioa. Proiektuaren helburu espezifikoarekin zuzenean lotuak daudenak bakarrik egotziko dira partida honetara.

d) Bertako langileen kostuak. Partida honetara egotzi beharreko kostuak zuzenean eta modu iraunkorrean proiektua egikaritzearekin lotuak dauden pertsonenak dira.

e) Erbesteratutako pertsonen kostuak, emandako dirulaguntzaren % 10a arte, eta hilean 3.000,00 euroko kopuru gordina gainditu gabe. Proiektuaren berariazko gorabeherak direla-eta, ehuneko hori igo beharra gertatzen bada, proiektuari txosten bat erantsi beharko zaio, igoera horren premia arrazoituz.

f) Proiektuari lotutako trebakuntza-gastuak. Populazio subjektuaren eta/edo tokiko bazkidearen trebakuntzara bideratutako baliabide teknikoak, giza baliabideak, baliabide metodologikoak eta materialak partida honetara egotzi behar dira.

g) Ondasun higigarrien nahiz higiezinen alokairuei dagozkien funtzionamendu-gastuak; ekipamendu, material eta ondasun suntsikorrak eskuratzerako gastuak eta proiektua aurrera eramateko bazkide lokalak kontratatutako zerbitzuak. Diru-kredituak nahiz ondasun-kredituak emateko beharrezkoa izan daitekeen txandakako funts baten zuzkidura partida honen barruan sartu beharko da. Funts hori kudeatzeko erregelamendua ere erantsi beharko da, bertan funtsaren xedea eta baldintzak zehaztuz (diru-funtsa ala ondasun-funtsa den, maileguen balio globala eta banakakoa, interes-tasa, gabe-aldia, eskatutako bermeak, organo kudeatzailea, itzulketa-kronograma, kobraezinen kontrola, itzulketari esker aurreikusitako sarrerak eta horien xedea). Partida honetara ezin egotz daitezke entitate eskatzailearen funtzionamendu-gastuak, horiek zeharkako kostuen partidari baitagozkio.

h) Proiektuaren auditoretza gastuak, gehienez 3.000,00 € arte.

i) Eskatutako zenbatekoaren gehienezko % 5eko komunikazio gastuak eta gizarte gipuzkoarrari proiektua gizarteratzekoak.

3. Lehentasuna izango dute sozialki arduratsuak diren kontratazioak eta hurbilekoak eta iraunkorrak diren produktuak, eta baita software eta lizentzia libreak ere. Ez dira finantzatuko marketin produktuak (boligrafoak, karpetak, pendrive-ak, poltsak...), ezta autoretza eskubideak ere, proiektua gauzatzeko ezinbestekoak direla bermatzen ez bada. Proiektuak eragindako materialak herritarren eskura jarri beharko dira, printzipioz, dohainik; hala ere, frogatzen bada komenigarriak direla, kostu prezioan saldu ahal izango dira, baldin eta onurak berriro proiektuan inbertitzen badira.

b) No sean sostenibles en el tiempo.

c) No incorporen la perspectiva de género.

d) No fortalezcan las capacidades locales.

e) No garanticen la participación de la población sujeto.

f) No respeten los derechos humanos.

g) No respeten los derechos de la naturaleza.

*6. Gastos subvencionables.*

1. No se subvencionarán gastos anteriores al año de publicación de la convocatoria.

2. Serán gastos subvencionables los costes directos en los siguientes términos:

a) La compra de terrenos. El importe de los conceptos y su titularidad deberá acreditarse mediante documentación probatoria adecuada.

b) La compra, construcción o rehabilitación de edificaciones e infraestructuras. Los materiales de construcción o rehabilitación, la mano de obra ligada de forma puntual a estas tareas y los estudios técnicos necesarios se deben incluir en esta partida.

c) La compra y transporte de equipos, materiales y servicios. Se imputarán solamente aquellos que estén relacionados directamente con el objetivo específico del proyecto.

d) Los costes de personal local. Los costes que deben imputarse en esta partida son los de aquellas personas relacionadas directamente con la ejecución del proyecto de forma continuada.

e) Los costes de personal expatriado, con un límite del 10 % de la subvención concedida y un máximo de 3.000,00 euros brutos por mes. En el caso de que, por las circunstancias particulares del proyecto, sea necesario aumentar ese porcentaje, se deberá incluir una breve memoria justificativa de la necesidad de dicho incremento.

f) Los gastos de formación vinculados al proyecto. Los recursos técnicos, humanos, metodológicos y materiales destinados al aumento de las capacidades de la población sujeto y/o socia local deben imputarse en esta partida.

g) Los gastos de funcionamiento relativos a los alquileres de bienes muebles o inmuebles, la adquisición de equipos y materiales y bienes fungibles y la contratación de servicios por parte del socio local para el desarrollo del proyecto. La dotación de un fondo rotatorio para la concesión de créditos monetarios o en especie se deberá incluir en esta partida. Será necesario adjuntar el reglamento de gestión del mismo, en el que se especificará su objetivo y condiciones (tipo monetario o en especie, valor global e individualizado de los préstamos, tipo de interés, periodo de carencia, garantías exigidas, órgano gestor, cronograma de devolución, control de incobrables, ingresos previstos con el retorno y destino de los mismos). En esta partida no pueden imputarse los gastos de funcionamiento de la entidad solicitante, que corresponden a la partida de costes indirectos.

h) Los gastos de auditoría del proyecto hasta un máximo de 3.000,00 euros.

i) Gastos de comunicación y socialización del proyecto a la sociedad guipuzcoana con un máximo del 5 % sobre la cantidad solicitada.

3. Se deberán priorizar las contrataciones socialmente responsables y los productos de cercanía y sostenibles, así como el software y las licencias libres. No se financiarán productos de mercadotecnia (incluidos bolígrafos, carpetas, pendrives, bolsas...), ni derechos de autoría a no ser que se demuestren indispensables para la ejecución del proyecto. Los materiales generados por el proyecto deberán ponerse al servicio de la ciudadanía, en principio, de manera gratuita; no obstante, si se justifica su conveniencia, se permitirá su venta por el precio de coste y siempre que los beneficios se reinviertan en el proyecto.

EK\CV GAO-I-2025-01653

4. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira zeharkako kostuak, eta horietan sartzen dira entitate eskatzailearen administrazio eta kudeaketa gastuak, proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen eta ebaluazioarekin lotuak daudenak. Gastu horiek ez dira dokumentu bidez justifikatu beharko, baina ezingo dute eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 gainditu.

*7. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

1. Oinarri espezifiko hauetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoa dirulaguntzen deialdia onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren erabakian ezarriko da.

2. Hautatutako proiektuei emandako laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako dirulaguntzaren % 100ekoa izango da. Kasu berezietan, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak eskatutako zenbatekoa baino kopuru txikiagoa eman ahal izango du, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta arrazoi justifikatuak erabiliz beti, baina ekimenaren bideragarritasuna arriskuan jartzera iritsi gabe edozein kasutan. Ekimenaren bideragarritasuna arriskuan dagoela ulertuko da baldin eta eskatutako dirulaguntzaren % 75etik beheragoko zenbatekoa bakarrik erantzun daitekeenean.

3. Onartutakoen artean puntuazio gutxien duen proiektua murriztu ahal izango da, behar izanez gero, aurrekontu kontsignazio erabilgarrira egokitu arte, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera.

*8. Dirulaguntzen justifikazioa eta erantzunkidetasun hitzarmena.*

1. Lerro honetan arautatako dirulaguntzen justifikazioa oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren arabera egin beharko da. Amaierako txostenari dagokionez, proiektua amaitzen den datatik kontatzen hasi eta 6 hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko da.

2. Behin dirulaguntza emateko prozedura erabaki ondoren, entitate onuradunak proiektua garatzeko erantzukidetasun-hitzarmen bat sinatuko du bere tokiko bazkidearekin, dirulaguntza emateko erabakia jakinarazi edo argitaratzen den datatik bi hilabeteko epearen barruan Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu beharko diona. Hitzarmen horrek honako puntu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

a) Alderdien baieztapena, oinarri arautzaileen edukia eta deialdia ezagutzen dutela esanez, eta horietatik eratorritako obligazioak betetzeko konpromisoa espresuki hartzen dutela adieraziz.

b) Dirulaguntzari esker eskuratutako ondasun higigarri nahiz higiezin guztiak populazio hartzailearen jabetzakoak, edo hori ezinezkoa balitz, tokiko bazkidearen jabetzakoak izatera pasatuko direla espresuki aipatzea, laguntzak zer-nolako xedetarako ematen diren erabilera horren jarraipena bermatuz betiere. Posible ez bada, modu egokian egiaztatu beharko da eta populazio hartzaileak sinatutako adostasun agiri bat aurkeztu beharko da erantsita.

c) Proiektuaren egikaritzapenari dagokionez, alderdi bien artean sor daitezkeen gatazka posibleak erabakitzeko mekanismo egokia ezartzea herrialde bakoitzean.

d) Hitzarmenaren hasiera eta amaiera data.

*9. Hegoaldeko nazio eta herri pobretuetan garapeneko proiektuei aplika dakizkiekeen balorazio irizpideak.*

a. Proiektuaren kalitate teknikoarekin lotutako irizpideak (25 puntu arte).

1. Proiektuari buruzko informazioa (5 puntu arte).

Honako hurrenkera hau baloratu egingo da: aurrekariak, GJHei lotura, testuingurua, justifikazioa, helburua, emaitzak, jarduerak, baliabideak, eta emaitzak kalkulatzeko adierazleen zehaztasuna.

2. Bideragarritasun teknikoa edo soziala (5 puntu arte).

Bidegarritasun teknikoa azpiegiturak eraikitzea aurreikusten duten proiektuei aplikatuko zaie, betiere eraikuntza bakoitzaren balioa 6.000,00 eurotik gorakoa bada.

4. Serán gastos subvencionables los costes indirectos, conformados por los gastos administrativos y de gestión de la entidad solicitante relacionados con la identificación, formulación, seguimiento y evaluación del proyecto. Estos gastos no estarán sujetos a justificación documental y no podrán exceder del 10 % de la subvención solicitada.

*7. Importe de la subvención.*

1. El importe de las subvenciones contempladas en estas bases específicas se establecerá en el acuerdo del Consejo de Gobierno Foral que apruebe la convocatoria de las ayudas.

2. El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, del 100 % de la subvención solicitada. En casos especiales, el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes podrá conceder una cantidad inferior al importe solicitado, tras el análisis de los gastos propuestos y por motivos justificados, siempre que por esta causa no se ponga en peligro la viabilidad de la iniciativa. Se entiende que la viabilidad de la iniciativa está en peligro cuando solo se puede atender una cantidad inferior al 75 % de la subvención solicitada.

3. El proyecto con menor puntuación de los aprobados podrá ser minorado, si fuera necesario, hasta ajustarlo a la consignación presupuestaria disponible de acuerdo a lo dispuesto en el párrafo anterior.

*8. Justificación de las subvenciones y convenio de corresponsabilidad.*

1. La justificación de las subvenciones reguladas en esta línea deberá efectuarse de acuerdo a lo dispuesto en las bases reguladoras generales. El informe final deberá presentarse en un plazo de 6 meses a contar desde la fecha de finalización del proyecto.

2. Una vez resuelta la concesión, la entidad beneficiaria suscribirá con su socia local un convenio de corresponsabilidad en el desarrollo del proyecto, que deberá ser presentado a la Dirección General de Cooperación Internacional en el plazo de dos meses desde la notificación o publicación de la concesión de la subvención. Dicho convenio deberá contener, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Confirmación de las partes de tener conocimiento del contenido de las bases reguladoras y de la convocatoria y compromiso expreso del cumplimiento de las obligaciones de ellas derivadas.

b) Indicación expresa de que todos los bienes muebles e inmuebles adquiridos con la contribución de la ayuda pasarán a ser propiedad de la población sujeto o, si ello no fuera posible, del socio local, debiendo garantizarse la continuidad del uso para el que se conceden las ayudas. En caso de no ser posible, deberá justificarse suficientemente y adjuntar el documento de conformidad firmado por la población sujeto.

c) Establecimiento del mecanismo adecuado en cada país para la resolución de los conflictos que puedan surgir entre ambas partes en relación con la ejecución del proyecto.

d) Fecha de inicio y fin de convenio.

*9. Criterios de valoración aplicables a los proyectos de desarrollo en los países y pueblos empobrecidos del sur.*

a. Criterios relacionados con la calidad técnica del proyecto (hasta 25 puntos).

1. Información sobre el proyecto (hasta 5 puntos).

Se valorará la coherencia de la secuencia, vinculación a ODS, antecedentes, contexto, justificación, objetivo, resultados, actividades, recursos, así como la definición de indicadores para los resultados.

2. Viabilidad técnica o social (hasta 5 puntos).

La viabilidad técnica se aplicará a aquellos proyectos que contemplen la construcción de infraestructuras con un valor unitario superior a los 6.000,00 euros.

Bidegarritasun soziala gainerako proiektuei aplikatuko zaie.

3. Bideragarritasun finantzarioa (5 puntu arte).

Irizpide hau etorkizunean diru-sarreraren bat beharko duten proiektuei aplikatuko zaie; hau da, planifikazioan aurreikusitako onura sozial eta ekonomikoak epe mugagabean ematen jarraitu ahal izateko dirulaguntza beharko duten proiektuei. Baloratu egingo da kasuan kasuko bideragarritasun plana aurkeztea.

4. Aurrekontuari buruzko azalpenak (5 puntu arte).

Baloratu ahal izateko, aurrekontua partidetan banakatua eta jardueretan banakatua azaldu behar da, proformako fakturak ere aurkeztuta. Azkeneko kasu horretan, banakako prezioa 2.500,00 eurotik gorakoa duten ondasunak edo zerbitzuak erosi behar direnean bakarrik exijituko dira proformako fakturak.

5. Laguntza instituzionala (5 puntu arte).

Baloratu egingo da erakunde publiko batek proiektuari emandako abala aurkeztea.

b. Ikuspegiekin lotutako irizpideak (45 puntu arte).

B1. Ikuspegi orokorrak (24 puntu arte).

6. Proiektua emakumeen eskubideen defentsara bideratuta badago edo landutako gaian genero-ikuspegia zeharka sartzen bada (8 puntu, gehienez).

7. Giza eskubideak, oro har, eta, bereziki, kolektibo ahul hauen eskubide zibilak eta askatasun publikoak: LGTBI; indarkeriaren biktima diren emakumeak; arrazoi ekonomiko, erlijioso, politiko, eta kastakoengatik zapalduta edo errefuxiatuta dauden pertsonak; hondamendi naturalen biktimak; biztanleria indigena; haurrak; ahultasun bereziko egoeran dauden adingabeak; desgaitasunen bat duten biztanleak; edo giza eskubideen defendatzaileak (8 puntu, gehienez).

8. Proiektuak zeharka txertatzen ditu ekologiari eta ingurumenari lotutako jasangarritasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka (8 puntu, gehienez).

B.2. Ikuspegi sektorialak (18 puntu gehienez).

9. Proiektuaren helburua da pertsonen gaitasunak garatzea edo giza garapen jasangarriarekin konprometitutako gizarte kritiko bat eratzea, hezkuntza formalera eta ez-formalera bideratutako estrategien bidez (6 puntu, gehienez).

10. Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako ekoizpen eta/edo kontsumo eredu berri batera bideratzen da proiektua, non ingurumen jasangarritasuna, lan duina, berdintasunezko harremanak, erantzukizun solidarioa eta antzeko printzipioak norbanakoaren onura eta gogobetetzea areagotzearen gainetik dauden (6 puntu, gehienez).

11. Lurralde berean bizi diren kultur taldeen balorazio positiboa, elkarrizketa eta kulturen arteko errespetua sustatzen ditu proiektuak, kultur talde jakin batzuen aurkako faktoreak eta estereotipoak identifikatzen ditu, eta horien aurka borrokatzen du (6 puntu, gehienez).

12. Toki erakundeen edo tokiko ordezkaritza erakundeen kudeaketa eta plangintza gaitasunak areagotzera eta gizarte zibila indartzera bideratzen da proiektua, bai eta kudeaketa praktikak sustatzera ere, hala nola herritarrek politika publikoetan parte hartzea, erakundeen gardentasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, edo kontzertazio publiko sozialeko espazioak sustatzea (6 puntu, gehienez).

13. Proiektua osasunaren sektorekoa da, eta xedetzat du gaixotasunak eta osasun arazoak pertsonen gaitasunak garatzeko oztopo izan ez daitezen bideratutako emaitzak eta ekintzak sustatzea (6 puntu, gehienez).

B.3. Beste ikuspegi batzuk (3 puntu gehienez).

14. Aurreko hiru urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektu baten jarraipena bada (gehienez 3 puntu).

La viabilidad social se aplicará al resto de proyectos.

3. Viabilidad financiera (hasta 5 puntos).

